DERRIGORREZ




MUXURIK EZ!

Muxu mota asko daude!



*Gabon muxuak daude!*



*Poza adierazteko muxuak daude!*



*Sendatzeko muxuak daude.*



Maitasuna adierazteko muxuak daude.




*Ikutu gabe ematen diren muxuak ere badaude, paperezkoak adibidez.*



*Airetik bidalitako muxuak*



Muxuak ez dira beti ahoarekin ematen.

Muxuak gehienetan oso atseginak izaten dira. Baina, eman al dizute desatseginа egin zaizun muxua noizbait?





Nahi dituzuenean eta sentsazio atseginak sortzen dutenean muxuak ZORAGARRIAK dira.



Zure gustukoa ez den norbaitek muxua eman behar dizunean EZ! esan dezakezu.

Behar bada, egunen batean ez duzu muxurik emateko gogorik. Erabakia zurea da EZ esan dezakezu!



EZ ESATEKO ESKUBIDEA DUZU!




Proba ezazu eta kaso egiten ez badizute kontatu gertatutakoa lagun bateri, gertuko heldu bateri edota ipuin hau kontatzen ari den pertsonari.

# DERRIGORREZ MUXURIK EZ!

